

# Memoria lantzeko printzipioak

102-45; 102-46; 102-48; 103-1

**E**ROSKIn urtero egiten dugu lan gure interes taldeei aurkezten diegun jarduera informazioa hobetzeko eta zabaltzeko, erakundearen barruan eta kanpoan gardentasunarekiko dugun konpromisoaren baitan. Hori horrela izanik, Global Reporting Initiative (GRI) erakundearen estandar berriak oinarri hartuta egin dugu txosten hau; izan ere, 1997an sortutako erakunde independente hori da, gaur egun, mundu mailan, jasangarritasun txostenak egiteko erreferentzia esparru nagusia, eta hamarkada bat

baino gehiago daramagu hura babesten, haren GOLD komunitateko kide moduan. Global Reporting Initiative ekimenaren estandarretan jasotako irizpide eta printzipioak aplikatzean, memoriaren eta haren edukiaren kalitatea gure interes taldeen itxaropenekin bat etortzea bilatu dugu. Gainera, azaldutako adierazleei esker, gure emaitzak datozen urteetako emaitzekin alderatu ahal izango ditugu, baita beste erakunde batzuek aurkeztutako txostenekin ere.

## Memoriaren irismena

**M**emorian hainbat sozietateri buruzko datuak bildu ditugu, hain zuzen informazio ez finantzarioari eta aniztasunari buruzko 11/2018 Legearen eraginpekoenak. Horiek dira finantza egoera bateratuetan bildutako 27 sozietateak, nahiz eta ez guztiek izan eragina memorian

jasotako alderdi ez finantzario guztietan. Honako taula honetan sozietateen finantza egoera bateratuen xehakapena jaso da, adierazitako alderdi materialen taldeen arabera.

SOZIEATEA	ALDERDI EKONOMIKOAK ETA DATUEN BABESA	INGURUMEN ALDERDIAK	GIZARTE/LAN/PRODUKTU-BEZERO ALDERDIAK
EROSKI KOOP. E.	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
CECOSA HIPERMERCADOS, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
EQUIPAMIENTO FAMILIAR Y SERVICIOS, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
CECOSA DIVERSIFICACIÓN, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
CECOSA SUPERMERCADOS, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
GRUPO EROSKI DISTRIBUCIÓN, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
GESTIÓN DE HIPERMERCADOS CAPRABO EISA, SLU	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
SUPERMERCADOS PICABO, SLU	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
PARQUE MARÍTIMO JINAMAR, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
FORUM SPORT, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
VIAJES EROSKI, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
CENTRAL DE SERVEIS CIENCIAS, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
CAPRABO, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
SOCIEDAD FRANQUICIAS EROSKI CONTIGO, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
EROSKI HIPERMERCADOS, S COOP	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
ALCAMUGA, SAU	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
CECOSA INSTITUCIONAL, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
CECOSA GESTIÓN, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
DESARROLLOS COMERCIALES DE OCIO E INMOBILIARIOS DE ORENSE, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
SOCIEDAD DE AFILIADOS EROSKI CONTIGO, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
JACTUS SPAIN, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
INMOBILIARIA RECARÉ, SAU	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
GESPA FORUM, SCP	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
APORTACIONES FINANCIERAS EROSKI, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
VEGONSA AGRUPACIÓN ALIMENTARIA, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
VEGO SUPERMERCADOS, SA	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣
MERCASH SAR, SL	██████████	░░░░░░░░	▣▣▣▣▣▣

Sozietate horietako batzuen ingurumen edo gizarte informaziorik ez egotearen arrazoia da ez dutela langilerik edo kontsumitzaileekin zuzeneko jarduerarik, eta horregatik, ez dute inolako eraginik ez finantzarioak diren alderdi horietan. Horretaz gain, EROSKI Fundazioak tokiko komunitateen GRI-413 estandararekin lotuta egiten dituen ekintzei buruzko informazioa erantsi da.

Sozietate horietatik, honako hauek dira 2. kapituluan (merkataritza sarea eta "zurekin" merkataritza ereduak) aurkeztu genituen negozioetarako establezimenduen jabe direnak:

Sozietatea	HIPERMERKATUAK	SUPERMERCATUAK	GASOLINDEGIAK	AISIA ETA KIROLA	BIDAIA AGENTZIAK	OPTIKAK	ONLINE DENDAK
EROSKI KOOP. E.	■	■				■	■
CECOSA HIPERMERCADOS, SL	■		■			■	
EQUIPAMIENTO FAMILIAR Y SERVICIOS, SA	■					■	
CECOSA SUPERMERCADOS, SL		■	■				
GESTIÓN DE HIPERMERCADOS CAPRABO EISA, SLU	■	■				■	
SUPERMERCADOS PICABO, SLU		■					
FORUM SPORT, SA				■			
VIAJES EROSKI, SA					■		
CAPRABO, SA		■	■				■
VEGO SUPERMERCADOS, SA	■	■	■			■	



## Materialtasunaren azterketa 102-49

**2**018an zehar 2017ko materialtasun azterketa eguneratu eta hobetu egin dugu EROSKIn.

Materialtasunaren azterketa hori erakundearen eragin ekonomikoak, ingurumenekoak eta gizartekoak islatzeko orduan eta interes taldeen erabakietan eragiteko orduan, edo ekonomian, ingurumenean edo sozietatean inpaktua sortzeko garaian zer alderdi diren garrantzitsuenak

zehazteko helburuarekin egin da. Garrantzitsutzat jotakoak materialtasun matrizean islatzen direnak dira.

Hala, materialak izan daitezkeen gaiak identifikatzeko, honako hauek hartu dira aintzat:

**Iturri bibliografikoak,** batez ere, GRIk argitaratutako erreferentziako estandarrak, esaterako GRI Standards, edo Governance & Accountability-k eginiko sektoreko gehigarriak, Nazio Batuen Mundu Hitzarmeneko printzipioak, baita informazio ez finantzarioari eta aniztasunari buruzko 11/2018 Legea ere.

**Merkatutik jasotako informazioa,** batez ere sektoreko enpresek eginiko argitalpenak, edo EROSKIn hornidura sareko enpresek eginikoak.

**Erakundeari eta bere interes taldeei buruzko barneko eta kanpoko informazioa,** hala nola langileekin, kontsumitzaileekin, bazkideekin, hornitzaileekin, hirugarren sektorearekin, administrazio publikoarekin, finantza zerbitzu eta inbertitzaileekin, eta hedabideekin eginiko xede taldeen eta inkestren emaitzak.

Ondoren, alderdi batzuk lehenetsi dira, hau da, EROSKlrentzat eta gure interes taldeentzat garrantzitsuenak direnak aukeratu dira. Horretarako barne azterketa bat gauzatu da (EROSKlrentzat duen garrantzia), baita kanpoko azterketa bat ere (interes taldeentzat garrantzia), identifikaturiko gaien garrantzi maila ezagutzeko.

Erabilitako kontsulta metodo nagusia online inkesta izan da, bai interes taldeentzat (kanpoko ikuspegia), bai erabakiak hartzeari dagokionez EROSKIn erantzukizunak dituzten pertsonentzat (barneko ikuspegia). Talde horien barruan daude Zuzendaritza Kontseilua, plantilla, frankiziak, bazkide bezeroak, bazkide kontsumitzaileak, hirugarren sektorea, hornitzaileak, administrazio publikoa, finantza zerbitzuak eta hedabideak. Prozesu horrek berekin ekarri du zuzeneko kontsulta bat egitea, baita kontsultaren irismena pertsona kopuru handiago bati zabaltzea ere, eta horregatik ulertzen da lortutako emaitzek interes talde desberdinen itxaropenei hobeto erantzuteko aukera ematen dutela.

Ondoren, erantzunak haztatu egin dira interes talde bakoitzak EROSKlrentzat duen garrantziaren arabera, eta berrikusi eta balioztatu egin dira materialtasunak egoki eta modu orekatuan islatzen duela erakundearen ingurumen arloko jarduna, bai eragin positiboena, bai negatiboena.

Azkenik, materialtasun matrizea lortu da, eta bertan identifikatu dira erakundearen alderdi materialak.



<b>Handia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Presentzia merkatuan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ustelkeriaren aurka egitea</li> <li>Berrikuntza</li> <li>Produktuaren trazabilitatea</li> <li>Datu pertsonalak babestea</li> <li>Efluentek eta hondakinak</li> <li>Enplegua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko betetzea</li> <li>Marketina eta etiketak</li> <li>Materialak</li> <li>Laneko osasuna eta segurtasuna</li> </ul>
<b>Ertaina</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zeharkako eragin ekonomikoak</li> <li>Energia</li> <li>Prestakuntza eta irakaskuntza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jarduera ekonomikoa</li> <li>Irigarritasuna</li> <li>Aniztasuna eta aukera berdintasuna</li> <li>Bazterkeriarik eza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erosketa praktikak</li> <li>Bezeroen segurtasuna</li> </ul>
<b>Txikia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Merkatuko lehiakortasuna</li> <li>Politika publikoa</li> <li>Isurketak*</li> <li>Elikagaiak alferrik galtzea*</li> <li>Biodibertsitatea</li> <li>Ura</li> <li>Kutsadura atmosferikoa</li> <li>Bezeroen kudeaketa</li> <li>Elkartzeko askatasuna eta negozioz kolektiboa</li> <li>Gizareratzea</li> <li>Lana eta familia bateragarri egitea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lehia desleiala</li> <li>Tokiko komunitateak*</li> <li>Kontsumitzaileentzako prestakuntza</li> <li>Langileak-enpresa harremanak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hornitzaileen ingurumen eta gizarte ebaluazioa</li> <li>Giza eskubideen ebaluazioa</li> <li>Bezeroen osasuna</li> </ul>
	<b>Txikia</b>	<b>Ertaina</b>	<b>Handia</b>

- Ingurumen kudeaketa
- Konpromisoak, politikak eta kudeaketa arduratsua
- Enplegua eta lan harremanak
- Bezeroak, kontsumitzaileak eta produktuaren erantzukizuna

Gai materialak itzaleztatutako eremuetan bildutakoak dira, eta horrez gain \* sinboloa dutenak erantsi dira EROSKIren jarduerarekin duten harreman eta garrantziagatik

#### Alderdi ekonomikoak

Jarduera ekonomikoa  
Presentzia merkatuan  
Ustelkeriaren aurka egitea  
Berrikuntza  
Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko betetzea  
Erosketa praktikak  
Hornitzaileen ingurumen eta gizarte ebaluazioa  
Giza eskubideen ebaluazioa  
Tokiko komunitateak

#### Ingurumen alderdiak

Materialak  
Efluentek eta hondakinak  
Energia  
Isurketak  
Elikagaiak alferrik galtzea

#### Gizarte/lan/produktu-bezero alderdiak

Enplegua  
Laneko osasuna eta segurtasuna  
Aniztasuna eta aukera berdintasuna – Bazterkeriarik eza  
Marketina eta etiketak  
Irigarritasuna  
Bezeroen segurtasuna  
Bezeroen osasuna  
Datu pertsonalak babestea  
Produktuaren trazabilitatea

## Alderdi materialen zerrenda eta haiek estaltzea 102-46; 103-1

Alderdi materiala	Non sortzen da inpaktua	EROSKIren inplikazioa	Materialtasunaren arrazoiak
Jarduera ekonomikoa (GRI 201)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Enpresaren kudeaketa ekonomikoak eragin handia du haren interes taldeetan. Sortutako langile kopuruari eragiten dio, produktu eta zerbitzuen erosketari, merkataritza sareari, enpresa estrategiari, zorraren kudeaketari eta mozkinen banaketari, besteak beste.
Presentzia merkatuan (GRI 202)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	EROSKI bezalako enpresa batek, lan egiten duen inguruneke garapena bultzatu nahi duenak, tokiko garapena sustatuko duen kontratazio eta soldata politika bat eduki behar du.
Erosketa praktikak (GRI 204)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa	Dugun erosketa bolumenak eta hornitzaile kopuruak balizko eragin nabarmena dakar lan egiten dugun inguruneke tokiko hornitzaileen garapenean.
Ustelkeriaren aurka egitea (GRI 205)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Dugun erosketa bolumenak eta hornitzaile kopuruak balizko eragin nabarmena dakar lan egiten dugun inguruneke tokiko hornitzaileen garapenean.
Berrikuntza	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Produktuen eta zerbitzuen diseinuan eta hobekuntzan berriak gure eskaintzaren segurtasuna eta kalitatea areagotzen jarraitzeko aukera ematen digu.
Materialak (GRI 301)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Ontzi eta bilgarriak fabrikatzeak, erabiltzeak eta eskaintzeak eragin handia izan dezake ingurumenean. Horregatik, materialen kontsumoa optimizatzea eta jasangarrienak erabiltzea eta gutxiago erabiltzea ezinbestekoa da gure bezeroentzat eta, oro har, gizartearentzat.
Energia (GRI 302)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Energia eraginkortasuna sustatzea eta iturri berriztagarrietatik lortutako energia erabiltzea lehentasunezkoa da ingurumen inpaktua murriztu eta erregai fosilen erabilera saihesteko.
Isurketak (GRI 305)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Berotegi efektuko gasek gizakien osasunaren eta klimaren gainean duten inpaktua da egungo arazo handi eta garrantzitsuenetako bat interes talde desberdinentzat.
Efluenteak eta hondakinak (GRI 306-11, 306-2)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Sortutako hondakin eta isuri kopurua murriztea funtsezkoa da ingurumena zaintzeko. Hortaz, haien eragin ekologikoa minimizatzea, haiek berrerabili, birziklatu eta bestela aprobetxatuta (ekonomia zirkularra) gizarte guztiaren helburua izan behar da.
Elikagaiak alferrik galtzea (GRI 306)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Elikagaiak alferrik galtzea prebenitzeko eta saihesteko ekimenak eta ekintzak garatzea bereziki garrantzitsua da elikagaien sektorean. Zarrastelkeria murriztuta, batetik, elikagaien ekoizpen ez eraginkorra edo ez beharrezkoa murrizten da eta, bestetik, gizarte inpaktu positiboa sortzen da elikagai horiek bazterkeria arriskuan diren pertsonen artean banatuta.
Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko betetzea (GRI 307 eta 419)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko legeak betetzea ezinbestekoa da jasangarritasunarekin loturiko inpaktu negatiboak bermatzeko. Gainera, zigor ekonomiko eta administratiboak ekar ditzake, baita ospearentzako arriskua ere.

Alderdi materiala	Non sortzen da inpaktua	EROSKIren inplikazioa	Materialtasunaren arrazioa
Hornitzaileen ingurumen ebaluazioa Hornitzaileen gizarte ebaluazioa (GRI 308-414)	Erakundetik kanpo	Zuzeneko eta zeharkakoa	Hornitzaileen katea arduraz kudeatzeak eta gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta etikoak txertatzeak gure enpresan eta balio kate osoan erantzukizun politikak ezartzen laguntzen du.
Empleo (GRI 401)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko	Enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea funtsezkoak dira EROSKI bezalako enpresa batean, zeinetan langile asko kooperatibaren jabe ere badiren, eta zeinetan 30.000 langile zuzen baino gehiago dauden.
Laneko Osasuna eta segurtasuna (GRI 403)	Enpresa barruan	Zuzeneko	Langileak diren gure lehentasunezko interes taldeetako bat, horregatik, osasuna eta segurtasuna sustatzea, eta laneko arriskuak prebenitzea funtsezkoa da enpresan.
Aniztasuna eta aukera berdintasuna	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko	Bazterkeriarik ez izateko politikak edukitzea eta aniztasunean, kultur aniztasunean eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarrituriko lan ingurune inklusiboa izatea.
Bazterkeriarik eza (GRI 405-406)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko	Giza eskubideekin loturiko irizpideak erabiltzea inbertsioarekin loturiko eragiketa, akordio eta kontratu esanguratsuetan, eta plantillari giza eskubideen politikari eta prozedurei buruzko prestakuntza eskaintzea.
Giza eskubideen ebaluazioa (GRI 412)	Erakundetik kanpo	Zuzeneko	Gizartean aktiboki parte hartzea lan egiten dugun komunitateen garapen ekonomikoa eta gizarte garapena bultzatuko duten gizarte ekintzako programen bidez.
Tokiko komunitateak (GRI 413)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko eta zeharkakoa	Elikagaiak banatzen dituen enpresa gisa, gure hornitzaileekin batera produktu guztien kalitatea eta segurtasuna bermatzea oso garrantzitsua da guretzat.
Bezeroen segurtasuna (GRI 416)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko eta zeharkakoa	Produktu osasuntsuagoak eta dieta bereziei egokituak edukitzea oinarrizkoa da gure bezeroen premiei erantzuteko. Espainiako gizentasun eta gehiegizko pisuaren tasa handiak direla eta, lehentasunezkoa da gizartearentzat produktu osasuntsuago eta orekatuagoak izatea. Era berean, elikagaien lotutako alergien ugaritzeak eta zenbait kolektiboren beharrek, hala nola zeliakoen kolektiboarenek, ezinbesteko egiten dute gure dendetan haietzako elikagai egokiak izatea, beren elikadura premiak asetzeko aukera izan dezaten.
Bezeroen osasuna	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko eta zeharkakoa	Produktuak beren ezaugarriei buruzko informazioarekin (osagaiak eta nutrizio edukia, segurtasuna kontsumoan, ontzia birziklatzeko aukera, eta abar) etiketatzea funtsezkoa da gure bezeroen osasunarentzat eta ingurumenarentzat, eta EROSKIk gardentasunaren alde egin duen apustua berresten du.
Marketina eta etiketak (GRI 417)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko	Marketinako jakinarazpenetan irizpide etikoak eta erantzukizunekoak aplikatzeak, arreta berezia eskaintzeak eta marketin individualizatuak garrantzi handia dute gure bezeroentzat.
Datu pertsonalak babestea (GRI 418)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko	Datu pertsonalen babesa bermatzea ez da legezko betebeharrak bakarrik, gure bezeroen eskakizuna eta EROSKIren konpromisoa ere bada.
Produktuaren trazabilitatea (GRI 416)	Erakundetik kanpo	Zuzeneko	Hornikuntza katearen trazabilitatea bermatzea, prozesu eta maila guztietan, funtsezkoa da edozer eragin negatibo prebenitzeko eta kontrolatzeko, hala arriskuak murriztuta, osasuna eta ingurumena bezalako arloetan.

## Memorian aurkeztutako adierazleen kalkuluar buruzko informazio osagarria 102-46; 103-1

Adierazlea	Irismena	Kalkulatzeko metodologia/iruzkinak
IZuzeneko langileei buruzko informazioa (GRI 102-8, 405-1)	EROSKI Taldea	<p>Zuzeneko langileen eta bazkide langileen kopurua 2018ko ekitaldiako azken hilabetean (2019ko urtarrila) erregistratutako datuen batezbestekoa da.</p> <p>Kontratu motaren, lanaldiaren, adinaren, generoaren eta kategoria profesionalaren arabera ehunekoak 2019ko urtarrilaren 31ko (ekitaldiaren amaiera) datuei dagozkie. Ehuneko horiek guztira adierazitako langile kopuruari (30.501) aplikatu zaizkie.</p> <p>Txandakatze kopurua eta indizea erakundea honako arrazoi hauengatik utzi duten langileei dagozkie: beren borondatez, kaleratzeagatik, erretiroagatik edo heriotzagatik.</p>
Ordainsariei buruzko informazioa (GRI 102-34, 102-35, 102-36, 102-37, 102-38, 102-39, 202-1, 405-2)	EROSKI Taldea	<p>EROSKI Koop. E.-ri eta Taldearen gainerako sozietateei buruzko informazioa eskaini da, ordainsari aldean arabera bereizita. Emandako datuak 2018 urte naturalekoak dira. EROSKI Koop. E.-ko kontsumo gordinaren aurrerapenari buruzko datuak erabiltzen dira, eta gainerako sozietateetako urteko ordainsari gordinari buruzkoak. Kontsumo gordinaren aurrerapena ordainsari garbiaren eta PFEZ atxikipenen batuketara da (Gizarte Segurantzari eginiko ekarpenak batu gabe).</p> <p>Kooperatibaren bilakaerari buruzko datuak aurreko urteetako txostenetatik atera daitezke. Taldeari dagokionez, historiko hori ez dugu aztertu. Aurten datu horiekin lanean hasi garenez, hurrengo urtetik aurrera bilakaera ikusten has gaitzke.</p> <p>IBEX 35eko enpresekin alderatzeko erabilitako datuak hemendik atera dira: Informe: <i>Evolución de indicadores de buen gobierno en las empresas del IBEX 35 durante el ejercicio 2017</i>. 1.º de Mayo fundazioa; 2019ko urtarrila.</p>
Istripu tasari buruzko informazioa eta LAPi buruzko prestakuntza (GRI 403-2, 404-1)	EROSKI Taldea	2018. urte naturaleko datuak.
Berrerabilitako ontzi logistikoak (GRI 301-3)	EROSKI Taldea (lokadura arloa)	2018ko ekitaldian EROSKI, CAPRABO eta VEGALSaren plataformetan erabilitako paletai eta plastikozko kaxei buruzko datuak.
Erakundearen energia kontsumoa (GRI 302-1)	EROSKI Taldea	<p>Ez dago erabileren arabera xehakaturiko elektrizitate kontsumoari buruzko daturik. Kalkuluan erabilitako bihurketa faktoreak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kilowatt ordua megajouletara bihurtzeko: 1 kWh = 3,6 MJ.</li> <li>• Garraio eragiketarako erregai kontsumoa (iturria: EROSKIren kalkuluak, bere garraio flotaren arabera).</li> <li>• Diesel litroak gigajouletan adierazteko bihurketa (iturria: <i>Factores de emisión. Registro de huella de carbono, compensación y proyectos de absorción de dióxido de carbono</i>. MAPAMA; 2018):             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dieselaren dentsitatea: 832,5 kg/m</li> <li>- Dieselaren bero ahalmena: 343 GJ/t</li> </ul> </li> </ul>
Erakundetik kanpoko energia kontsumoa (GRI 302-2)	EROSKI Taldea	<p>Kalkuluan erabilitako bihurketa faktorea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dieselaren batez besteko kontsumoa errepide bidezko lan bidaietan: 5,68 l/km. (Iturria: M1 motako ibilgailuen 100 km-ko kontsumoaren batez bestekoa. IDAE-EDAIren datu basean dagoena).</li> </ul>

Adierazlea	Irismena	Kalkulatzeko metodologia/iruzkinak
Energia intentsitatea (GRI 302-3)	EROSKI Taldea	Erakundearen energia kontsumo erlatiboa kalkulatzeko adierazleak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkataritza azalera: 1.298.274 m<sup>2</sup> (2019ko urtarrilaren 31n)</li> <li>• Salmenta garbiak: 4.698 milioi euro.</li> </ul>
Energia kontsumoa murriztea (GRI 302-4)	EROSKI Taldea	Garraiorako erregai kontsumoaren eta energia kontsumoaren murrizketak aurkezteko 2017ko datuak erabili dira oinarritzat, horiek baitatoz bat GRlren ereduari jarraituz egin dugun lehen jasangarritasun txostenarekin.
Ur kontsumoa iturriaren arabera (GRI 303-1)	EROSKI Taldea	2018ko ekitaldiko kontsumoa kalkulatzeko edateko uraren gastutik abiatu gara. Bihurketa faktore gisa erabilitako uraren batez besteko prezioa 2,87 €/m <sup>3</sup> -koa da, eta ur kontsumoa duten hainbat sozietate edo negozioren fakturak aztertzeke eginiko lagin baten arabera kalkulatu da. Ez dago EROSKI hornitzen duten udalerriek ura ateratzeko erabiltzen dituzten iturri guztien erregistrorik.
Biodibertsitatea (GRI 304-1)	EROSKI Taldea	Informazio iturria: Trantsizio Ekologikorako Ministerioa. Denda frankiziatuak ez dira aintzat hartu.
Ur isuriak	EROSKI Taldea	Estimazioen arabera, isuritako ura kontsumitutako ur edangarriaren % 99 da.
Bezeroek utzitako hondakinak	EROSKI Taldea	Pilen, argien eta gailu elektriko eta elektronikoen datuak 2018 urte naturalari dagozkio.
BEGen zuzeneko isuriak (1. irismena) (GRI 305-1)	EROSKI Taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berotze Globalaren Potentziala kalkulatzeko erabilitako karakterizazio faktoreak (kg CO<sub>2</sub>eq/kg CO<sub>2</sub>, kg CO<sub>2</sub>eq/kg CH<sub>4</sub>, kg CO<sub>2</sub>eq/kg N<sub>2</sub>O, isuritako HFCak): <ul style="list-style-type: none"> <li>- 2013ko IPCCko GWP100 (iturria: CML, Institute of Environmental Sciences, Leidengo Unibertsitatea, 2016ko abuztua).</li> <li>- Hozgarrien nahasteetarako, dagokion karakterizazio faktorea haien konposizioa aintzat hartuta kalkulatu da (HFC bakoitzaren %-a), baita CMLren 2013ko IPCCko GWP100eko isurketa faktoreak ere (2016ko abuztua).</li> </ul> </li> <li>• Gas naturalaren eta garraioko dieselaren CO<sub>2</sub> isurketa faktoreak (iturria: <i>Factores de emisión. Registro de huella de carbono, compensación y proyectos de absorción de dióxido de carbono 2018</i>. MAPAMA; 2019): <ul style="list-style-type: none"> <li>- 0,203 kg CO<sub>2</sub>/kWh-ko bero ahalmen garbia.</li> <li>- 0,901 kWh-ko bero ahalmen garbia/goiko bero ahalmenaren kWh.</li> </ul> </li> <li>• Gas naturalaren CH<sub>4</sub> eta N<sub>2</sub>O isurketa faktoreak 2006ko IPCCak berotegi efektuko gasen inbentario nazionaletarako adierazitako jarraibideei dagozkie (Stationary combustion. 2.4. taula).</li> <li>• Isuriak finkatzeko ikuspegia: eragiketa kontrola.</li> </ul>
BEGen zeharkako isurkiak energia sortzean (2. irismena) (GRI 305-2)	EROSKI Taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• CO<sub>2</sub>-aren isurketa faktorea mix nazionalaren arabera (iturria: "2018an sortutako energiari dagozkion elektrizitatearen jatorria eta etiketatzea bermatzeko sistemaren emaitzei buruzko akordioa". CNMC; 2019): <ul style="list-style-type: none"> <li>- 0,41 kg CO<sub>2</sub>eq/kWh</li> </ul> </li> <li>• CO<sub>2</sub>-aren isurketa faktorea merkaturatzaileen mixaren arabera (iturria: EROSKI merkaturatzaile bakoitzetik kontsumitutako ehunekoaren eta CNMCK 2018an merkaturatzaile bakoitzerako adierazitako ingurumen inpaktuko faktoreen arabera kalkulatu): <ul style="list-style-type: none"> <li>- 0,28 kg CO<sub>2</sub>/kWh.</li> </ul> </li> <li>• Isuriak finkatzeko ikuspegia: eragiketa kontrola.</li> </ul>